



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Lakatsa, Lagatxaga.

Auzoa, udalerria: Santiagomendi., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren hegoaldeko erdian bizi dira Irastortza familiakoak. Behe solairuan, hegomendebaldean dute toleara, ukuluaren ondoko sotoan.

Jabea: Antonio Irastortza.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: 1950era arte egon zen martxan.

Zenbait datu: Azken urteetan etxerako bakarrik egiten zuten sagardoa, baina lehenago kanporako ere, zer edo zer. Tolare honen aurretik beste bat izan zuten, zaharragoa eta pisoiekin eskuz jotzen zuten sagarra.

Egungo erabilera: Baratzerako zurkaitz edo makilen biltegia.

Kontserbazio egoera: Hala moduzkoa.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Hormigoizko askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz bakarra du. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da gora eta behera burua, estutzeko karraka mekanismoa eta loturik duen egurrezko urkaz osatua.

Dolarearen osagarriak:

Sagardo botilen biltegia.

Argazkiak: 01.01, 01.02.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, Astigarraga.

OHARRAK

Motordun matxaka erabili zuten azken urteetan.

GALDETEGIA

Informatzailea: Antonio Irastortza.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 15a